Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA - 2026-07-09
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-07-16
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL
Akordioa/Acuerdo: DF 00072/2026 - Data/Fecha: 2026-07-16
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-07-16
GZko 9.gaia onartuta - Aprobado, asunto 9) de OD



**Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA,** haurren eta gazteen arloan lanean diharduten irabazteko asmorik gabeko Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeentzako, 2026ko udan udalekuak, kanpamenduak eta auzolandegiak antola ditzaten, Aldundiaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena.

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia,** por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a las entidades vizcaínas sin ánimo de lucro de ocio y tiempo libre que trabajen en el ámbito de la infancia y juventud para la organización de colonias, campamentos y campos de trabajo durante el verano del año 2026.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburu bat da udan haur eta gazteentzat jolas-aisialdia indartzen duten programak, proiektuak eta jarduerak antola eta gara daitezen sustatzea eta, aldi berean, entretenimendua, bizikidetza eta kooperazioa bultzatzea.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia tiene entre sus objetivos fomentar la organización y desarrollo de programas, proyectos y actividades que potencien el ocio recreativo y favorezcan el entretenimiento, la convivencia y la cooperación, entre la población infantil y juvenil en periodos estivales.

Horretarako, urtero dirulaguntzen hainbat lerro ditu eta beren xedea sektorean lanean diharduten erakundeekin lankidetzan jardutea da, haurren eta gazteen aisialdi eta astialdiaren eremuan lana garatze aldera beharrezko baliabide ekonomikoez hornitzeko.

Para ello cuenta anualmente con una serie de líneas subvencionales que tienen por objeto colaborar con las entidades que trabajan en este sector, con el fin de dotarlas de los recursos económicos necesarios para desarrollar su labor en el ámbito del ocio y tiempo libre de carácter infantil y juvenil.

Azkeneko eremu honetan sartzen da deialdi hau eta hezkuntzaren arloan aisialdi eta astialdiko jarduerak babestea du helburu. Ildo horri eutsiz, Lurralde Historikoan garatzen diren udaleku, kanpamentu eta landa-eremuetan parte hartzen dutenek emozioen eta hezkuntzaren ikuspegitik ikas dezaten bultzatuko da.

A este último ámbito responde la presente convocatoria, dirigida a apoyar la actividad de ocio y tiempo libre educativo, favoreciendo el aprendizaje emocional y educacional de quienes participan en las colonias, campamentos y campos de trabajo que se desarrollan en nuestro Territorio Histórico.

Proposatutako xedapen orokorrak hizpide duen arloan eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak du, 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkide eta bere Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzkoak, xedatutakoarekin bat. Izan ere, 7.c).2 artikuluari jarraiki, azkenekoek beren lurraldeetan erakunde erkideen legedia gauzatuko dute honako arloetan: erkidegoa garatzea, emakumeak, haur, gazte eta adinekoen

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos en su artículo 7.c).2, la ejecución dentro de su territorio de la legislación de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

politika, aisialdi eta astialdia. Dena den, hori guztia egingo dute, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek arlo horietan garatutako zuzeneko ekintza gorabehera.

Gainera, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen 10. artikuluak ezartzen duenez, lurralde historikoko gazteentzako jarduera espezifikoak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko eta pribatuei dirulaguntzak ematea foru-organoei dagokie, beren Lurralde-Historikoan.

Dirulaguntza horien kalifikazioari dagokionez, foru dekretu honetan arautitako dirulaguntzak ez dira Estatuaren laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluaren ildotik; izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen diren jarduerak dira, eta aisialdi hezitzailea eta gazteen denbora librea sustatzera zuzenduta daude, gizarte- eta hezkuntza-helburu argiarekin. Irismena tokikoa eta mugatua du, eta ez du eragin nabarmenik ez lehian ez erkidego barruko merkataritzan.

Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuaren arabera, sail honen eskumena da umeak eta nerabeak artatzea udaleku eta kanpamentuetako jardueretan, bai eta aisialdiaren eremuko elkarteentzako laguntzei dagokiena ere.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

las Instituciones Comunes, en materia de desarrollo comunitario, condición femenina, política infantil, juvenil, de la tercera edad, ocio y esparcimiento, sin perjuicio de la acción directa en estas materias por parte de las Instituciones Comunes del País Vasco.

Además, la Ley 2/2022 de Juventud, de 10 de marzo, en su artículo 10 establece que es atribución de los órganos forales dentro de su ámbito territorial la concesión de subvenciones a personas físicas y jurídicas públicas y privadas que desarrollen actuaciones específicas para las personas jóvenes del Territorio Histórico.

En cuanto a la calificación de estas subvenciones, las subvenciones reguladas en el presente decreto foral no constituyen ayudas de Estado en el sentido del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, ya que se trata de actividades que se desarrollan en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia y están dirigidas a la promoción del ocio educativo y el tiempo libre de carácter juvenil, con una clara finalidad social y educativa. Su alcance es local y limitado, sin incidencia apreciable en la competencia ni en el comercio intracomunitario.

Por su parte, el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, atribuye a este departamento la competencia para atender al colectivo infantil y adolescente en lo referente a actividades de colonias y campamentos y las ayudas a las asociaciones del ámbito del tiempo libre.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Beste alde batetik, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2014 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 112/2014, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los Diputados Forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Foru Aldundiaren dirulaguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

Haurren eta gazteen arloan lanean diharduten irabazteko asmorik gabeko Bizkaiko aisialdi eta astialdiko erakundeentzako, 2026ko udan udalekuak, kanpamenduak eta auzolandegiak antola ditzaten, Aldundiaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a las entidades vizcaínas sin ánimo de lucro de ocio y tiempo libre que trabajen en el ámbito de la infancia y juventud para la organización de colonias, campamentos y campos de trabajo durante el verano del año 2026.

## Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

1. Se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

2. Asimismo, se habilita a la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte para acordar la ampliación del plazo de presentación de solicitudes, en el caso de incidencia técnica que imposibilite el funcionamiento ordinario del sistema o aplicación correspondiente, previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Diputatua / La Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte. LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

HAURREN ETA GAZTEEN ARLOAN LANEAN DIHARDUTEN IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO BIZKAIKO AISIALDI ETA ASTIALDIKO ERAKUNDEENTZAKO, 2026KO UDAN UDALEKUAK, KANPAMENDUAK ETA AUZOLANDEGIAK ANTOLA DITZATEN, ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Dirulaguntzaren xedea da aisialdi eta denbora libre hezitzaileko udako proiektuak antolatzea eta garatzea haurrentzat eta gazteentzat, baldin eta helburu ludikoa eta hezitzailea badute.

Hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen programak:

a) Kanpamentu finkoak: gutxieneko iraupena bost (5) gau izango da, eta gehienekoa hamalau (14) gau. Gutxienez hamabi (12) partaide izango dituzte, 6 eta 18 urte bitartekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.

b) Kanpamentu ibiltariak: gutxieneko iraupena bost (5) gau izango da, eta gehienekoa hamalau (14) gau. Gutxienez zortzi (8) partaide izango dituzte, 14 eta 18 urte bitartekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.

c) Udalekuak: gutxieneko iraupena bost (5) gau izango da, eta gehienekoa hamalau (14) gau. Gutxienez hamabi (12) partaide izango dituzte, 6 eta 18 urte bitartekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.

d) Udaleku irekiak: gutxieneko iraupena bost (5) gau izango da, eta gehienekoa hamabost (15) gau, jarraikakoak eta toki berean. Gutxienez hamabi (12) partaide izango dituzte, 6 eta 18 urte bitartekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.

e) Lanerako eremuak: gutxieneko iraupena bost (5) gau izango da, eta gehienekoa hamalau (14) gau. Gutxienez zortzi (8) partaide izango dituzte, 18 eta 30

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES FORALES DESTINADAS A LAS ENTIDADES VIZCAÍNAS SIN ÁNIMO DE LUCRO DE OCIO Y TIEMPO LIBRE QUE TRABAJEN EN EL ÁMBITO DE LA INFANCIA Y JUVENTUD PARA LA ORGANIZACIÓN DE COLONIAS, CAMPAMENTOS Y CAMPOS DE TRABAJO DURANTE EL VERANO DEL AÑO 2026.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Constituye el objeto de la subvención la organización y el desarrollo de proyectos de verano de ocio y tiempo libre educativo, dirigidos a la infancia y juventud, y cuya finalidad sea lúdica-educativa.

Dichos programas consistirán en:

a) Campamentos fijos que tengan una duración mínima de cinco (5) noches, y máxima de catorce (14) noches, en los que participen, al menos, doce (12) personas con edades comprendidas entre los 6 y los 18 años y con empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Campamentos volantes que tengan una duración mínima de cinco (5) noches, y máxima de catorce (14) noches, en los que participen al menos ocho (8) personas con edades comprendidas entre los 14 y 18 años y con empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Colonias que tengan una duración mínima de cinco (5) noches, y máxima de catorce (14) noches, en las que participen al menos doce (12) personas con edades comprendidas entre los 6 y los 18 años y con empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

d) Colonias abiertas que tengan una duración mínima de cinco (5) días, y máxima de quince (15) días, consecutivos en el mismo espacio, en las que participen al menos doce (12) personas con edades comprendidas entre los 6 y los 18 años y con empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

e) Campos de trabajo que tengan una duración mínima de cinco (5) noches, y máxima de catorce (14) noches, en los que participen al menos ocho (8) personas con

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

urte bitartekoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta daudenak.

edades comprendidas entre los 18 y 30 años y con empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Partaideen adinari dagokionez 2026an betetzen dutena hartu behar da kontuan; eta Bizkaian erroldatuta egoteari dagokionez, jarduera egiten den data da erreferentzia.

La edad de los participantes se entenderá aquella que cumplan en el año 2026; y el empadronamiento en Bizkaia se entenderá referido a fecha de celebración de la actividad.

2. Dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2026ko ekainaren 12tik irailaren 13ra (egun bi horiek barne) gauzatu beharko dira, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

2. Los proyectos que motiven la solicitud de subvención deberán desarrollarse en el periodo comprendido entre los días 12 de junio y 13 de septiembre de 2026 (ambos incluidos) y cumplir los siguientes requisitos:

a) Programaren zuzendariak Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak emandako edo homologatutako titulazioa izan beharko du, edo gizarte eta hezkuntza arloko gradu-titulazioa. Begiraleek Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza eskudunak emandako edo homologatutako titulazioa izan beharko dute, edo gizarte eta hezkuntza arloko goi-mailako zikloaren titulazioa.

a) El director o directora del programa, deberá tener la titulación expedida u homologada por la dirección competente del Gobierno Vasco, o titulación de grado de la rama socio educativa. Las personas monitoras, deberán tener la titulación expedida u homologada por la dirección competente del Gobierno Vasco, o la titulación del ciclo de grado superior de la rama socioeducativa.

Pertsona horiek dedikazio esklusiboz beteko dituzte beren eginkizunak eta jarduerak dirauen aldi osoan bertan egon beharko dute.

Deberán ejercer sus funciones con dedicación exclusiva en cada proyecto, garantizando su presencia durante todo el período de duración del mismo.

b) Adingabekoekin lan egiten duten profesional eta boluntario guztiek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak 2026an emandako ziurtagiri negatiboa izan beharko dute.

b) Todas las personas profesionales y voluntarias que trabajen en contacto con menores deberán contar con Certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales emitido en el año 2026.

c) Bete behar da Eusko Jaurlaritzak xedatzen duena ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baita haur eta gazteentzako kanpamentuen, udalekuen, udaleku irekien, auzolandegien eta kanpamentu ibiltarien araubidea, edo indarrean dagoen Dekretuan, bai eta Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legean xedatutakoa ere.

c) Cumplir con lo dispuesto en el Decreto 170/1985, de 25 de junio del Gobierno Vasco, por el que se regula el régimen de campamentos, colonias, colonias abiertas, campos de trabajo y marchas volantes infantiles y juveniles o en el Decreto en vigor regulador de la materia, así como en la Ley 2/2022 de Juventud, de 10 de marzo.

d) Denbora libreko/aisialdi hezigarriko jardueraren erantzukizunpeko adierazpena aldez aurretik dagokion jardueraren foru-administrazioan aurkeztu izana, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduerei buruzkoa.

d) Haber presentado la declaración responsable de actividad de tiempo libre/ocio educativo en tiempo y forma ante la administración foral correspondiente, en el caso de que las actividades se lleven a cabo en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Beste erkidego batzuetan gauzatzen diren jardueren kasuan, aurkeztuta eduki behar da jarduerok gauzatzeko haietan eskatzen den dokumentazioa.

En el caso de las actividades que se realicen en otras comunidades, haber presentado la documentación requerida en las mismas para su desarrollo.

3. Foru dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:

3. Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Berariaz kirol-adierazpen lehiakorra dakarten programak.

a) Aquellos programas que impliquen específicamente una manifestación deportiva de carácter competitivo.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Edozein motatako diskriminazioa eragiten duten proiektuak edo jarduerak, tratu-berdintasunari eta sexuagatiko diskriminaziorik ezari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

b) Los proyectos o actividades que incurran en discriminación de cualquier clase, de acuerdo con lo establecido en normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación por razón de sexo.

c) Hizkuntzak ikastea xede duten campusak.

c) Los campus que tengan por objeto el aprendizaje de idiomas.

d) Udako kirol campusak.

d) Los campus deportivos de verano.

e) Helburu nagusitzat denbora libre hezitzaileko hezkuntza sustatzea ez duten jarduera guztiak.

e) Todas aquellas actividades cuyo objeto principal no sea el fomento de la educación en el tiempo libre educativo.

4. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak. Horrez gain, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

4. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) Eskatzailearen egitura kudeatzeagatik sortutako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak eta egitura funtzionala mantentzeko gastuak).

a) Los gastos de gestión de la estructura de la solicitante (personal, mantenimiento de los locales, mantenimiento de su estructura funcional).

b) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

b) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

c) Banku-kontuetako interes zordunak.

c) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

d) Interesak, errekarguak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.

d) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

e) Prozedura judizialen gastuak.

e) Gastos de procedimientos judiciales.

f) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.

f) El IVA cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

g) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

g) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

5. Foru dekretu honen helburua eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu

5. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

guztiak.

2. oinarria. *Onuradunak.*

1. Foru Dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko inguruabarretan sartuta ez dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak, baldin eta haur eta gazteen hezkuntzarako aisialdiaren eta denbora librearen esparruan lan egiten badute, 2026ko udan udalekuak, kanpamenduak eta auzolandegiak antolatzen badituzte eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

c) Eusko Jaurlaritzaren dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta egotea, izan elkarteen erregistroan zein fundazioen erregistroan.

c) Irabazi-asmorik ez izatea.

d) Dagokion erregistroko inskripzioan jasotakoaren arabera, hauetakoren bat sustatzeko helburua izatea: astialdia, gazte aisia hezigarria, gazteria edo antzekoa.

e) Erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat kontratatu beharko da, jarduera egiten den bitartean gertatzen diren ezbeharrak estaltzeko.

f) Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko jarduketen garapenean esperientzia eta ibilbidea egiaztatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 43. artikuluarekin bat etorrita, foru-dekretu honen 6.2 oinarrian ezartzen den moduan.

2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude pertsona hauek:

a) Ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak.

b) Kirol klubak eta elkarteak.

c) Kongregazio erlijiosoak.

3. Era berean, honako pertsona juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso edo parte hartu:

a) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

la ejecución de la actividad.

Base 2. *Beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral las entidades sin ánimo de lucro que, no estando incursas en las circunstancias del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, trabajen en el marco del ocio y tiempo libre educativo infanto-juvenil, que organicen colonias, campamentos y campos de trabajo durante el verano del año 2026 y que cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener el domicilio social en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Estar debidamente inscrita en el registro de Gobierno Vasco que le corresponda, bien el registro de asociaciones o el de fundaciones.

c) No tener ánimo de lucro.

d) Tener como finalidad, según conste en la inscripción en el registro correspondiente, alguna de las siguientes: la promoción del tiempo libre, el ocio educativo juvenil, promoción de la juventud o similar.

e) Contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil que dé cobertura a los posibles siniestros que puedan producirse en el transcurso de la actividad.

f) Demostrar experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad efectiva de mujeres y hombres, en los términos previstos en la base 6.2 del presente decreto foral, en coherencia con el artículo 43 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral los siguientes sujetos:

a) Las asociaciones de madres y padres de alumnado de centros educativos.

b) Los clubes y asociaciones deportivas.

c) Las congregaciones religiosas.

3. Así mismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas jurídicas:

a) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar.

b) Que hayan sido objeto de sanción administrativa, laboral o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad.

c) LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako pertsonak diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo edo penalen bat jaso badute, zehapenean ezarritako epean zehar.

c) Que hayan sido objeto de sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.

d) Que no cumplan con la obligación de disponer de planes de igualdad y protocolos y/o documentos que recojan las medidas para prevenir y combatir el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las violencias sexuales en los términos establecidos por la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

## II. TITULUA

## Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko dirusarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

## TÍTULO II

## Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

alcancen como mínimo 5.000 euros.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen Erregelamenduaren IV. tituluan ere.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su Reglamento de desarrollo.

III. TITULUA

## Prozedura

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluaren arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera

Dirulaguntza jarduera (kanpamentu finkoa, kanpamentu ibiltaria, udalekua, udaleku irekia edo lanerako eremua) egindakoan eskatuko da.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko uztailaren 15etik 2026ko irailaren 15eko 13:30ak arte izango da.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, deialdi honen berariazko eredura egokitu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko:

https://www.ebizkaia.eus/eu/ hasiera

2. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Denbora libreko/aisialdi hezitzaileko jardueraren erantzukizunpeko adierazpena, dagokion foru-administrazioan garaiz eta behar bezala aurkeztua, Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen diren jardueren kasuan.

Era berean, beste erkidego batzuetan gauzatzen diren

TÍTULO III

## Procedimiento

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

La solicitud de subvención se presentará una vez realizada la actividad (campamento fijo, campamento volante, colonia, colonia abierta o campo de trabajo).

2. El plazo para la presentación de solicitudes será desde el día 15 de julio de 2026 hasta las 13:30 horas del 15 de septiembre de 2026.

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse al modelo específico de la presente convocatoria, disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Declaración responsable de actividad de tiempo libre/ocio educativo presentada en tiempo y forma ante la administración foral correspondiente, en caso de que las actividades se desarrollen en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Asimismo, en el caso de las actividades que se realicen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

jardueren kasuan, horiek garatzeko eskatzen den dokumentazioa.

en otras comunidades, documentación requerida en las mismas para su desarrollo.

d) Eskatzaileak kontratatutako erantzukizun zibileko asegurua; agiri horrek Eusko Jaurlaritzaren 2000ko irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan ezarritako baldintzak jaso beharko ditu.

b) Seguro de responsabilidad civil contratado, que deberá reunir las condiciones establecidas en el Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, del Gobierno Vasco.

e) Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduketen arloan duten esperientzia eta ibilbidea egiaztatzeko dokumentua, salbu eta lehenago aurkeztu bada eta indarrean jarraitzen badu.

c) Documento con el que acreditar la experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres, salvo en el caso de que se haya entregado anteriormente y continúe vigente.

f) Udaleku finko, udaleku ireki, kanpamentu, kanpamentu ibiltari edo lanerako eremu bakoitzeko, dokumentazio hau erantsi beharko da:

d) Por cada colonia, colonia abierta, campamento fijo, campamento volante o campo de trabajo que se haya realizado, se deberá adjuntar la siguiente documentación:

1) Eskatzailearen proiektua, diruz lagundutako jardueraren garapenari buruzko ebaluazio-memoria jaso beharko duena. Euskararen, kulturaren eta kirol autoktonoaren erabilera sustatzeko garatutako ekimenak azaldu beharko dira, bai eta genero-ikuspegia txertatzea sustatzen dutenak eta, halakorik izanez gero, haurrak eta nerabeak babesteko jarduera-protokoloa abian jarri behar izan duten gorabeherak ere. Proiektu horrek gutxienez bost (5) orrialde eta gehienez hamabost (15) izan beharko ditu.

1.º Proyecto de la solicitante, que deberá contener una memoria evaluativa del desarrollo de la actividad realizada objeto de subvención. Se deberán explicar las iniciativas desarrolladas en el fomento del uso del euskera, de la cultura y el deporte autóctono, además de aquellas que promuevan la inclusión de la perspectiva de género y las incidencias en las que se haya tenido que poner en marcha el protocolo de actuación para la protección de la infancia y la adolescencia, si se hubieran dado. La extensión de dicho proyecto deberá ser de un mínimo de cinco (5) páginas y un máximo de quince (15).

2) 1.800,00 euroko esleipen finkoa jaso nahi duten entitateek txosten bat aurkeztu beharko dute, non azalduko baita entitateak aurtengo urtarriletik ekainera bitartean gauzatutako programa.

2.º En el caso de las entidades que se quieran acoger a la asignación fija de 1.800,00 euros, un informe que contenga el programa ejecutado por la entidad entre los meses de enero y junio del presente año.

3) Kanpamentu ibiltarien kasuan, etapak eta kanpatzeko lekuak adierazi beharko dira egutegian.

3.º En el caso de los campamentos volantes, su calendario de etapas y lugares de acampada.

4) Zuzendarien eta begiraleen titulazioa, eta elikagaien manipulatzailearen eta sorosleraren titulazioa ere aurkeztu behar dira, salbu eta lehenago aurkeztu bada Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalean.

4.º Titulación de las personas que ostenten el cargo de dirección y monitorado, y titulación de manipulación de alimentos, y socorrismo, salvo que se haya entregado anteriormente en la Sección de Programas Socioeducativos del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

e) Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere, hau guztia formatu digitalean; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 17. oinarriaren g) letran

e) Ejemplares de mano, carteles, publicaciones, material audiovisual e informático, así como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, todo ello en formato electrónico, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertará en éstos los elementos institucionales de ésta en los términos previstos en apartado g) de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezarritakoarekin bat etorrita.

base 17 del presente decreto foral.

f) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

f) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Eskabidea erakundearen legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuko du, eta, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko du:

3. La solicitud irá firmada por aquella persona con capacidad legal de la entidad que deberá cumplimentar, según modelo disponible en sede lo siguiente:

a) Erakundeko zuzendaritza-batzordeko edo organoko kideen kopuruarekin, sexuaren arabera bereizita. Banan-banan lehendakaritza duen pertsonaren generoa adieraziko da.

a) Número de personas de la junta u órgano directivo de la entidad, disgregado por sexo, especificándose individualmente el género de quien ostente la presidencia.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, entitateak aurkezten duen eskabidean jasotako pertsona bakoitzari jakinarazi zaiola Bizkaiko Foru Aldundiak, ahal denean, elkarreraginean jardungo duela euskara-mailari eta sexu-delituei buruzko datuak lortzeko.

b) Declaración responsable relativa a haber informado a cada una de las personas incluidas en la solicitud que presenta la entidad, que salvo oposición expresa de estas, la Diputación Foral de Bizkaia, cuando sea posible, interoperará para obtener los datos de nivel de euskera y delitos sexuales.

c) Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzkoan, oinarrituta, erantzukizunpeko adierazpena, ezagutzen duela adierazten duena eta, hala badagokio, aisialdiaren eta denbora librearen eremuan haurrak eta nerabeak babesteko foru-jarduketako protokoloa aplikatuko duena, protokoloak eskatzen dituen baliabide materialak eta giza baliabideak ezarriz, eta jarduerak irauten duen bitartean haurrak eta nerabeak babesteko ordezkari bat izendatuz, adingabeek hara jo ahal izan dezaten.

c) En base a la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia, declaración responsable relativa a que la conoce y, a que, en su caso, aplicará el protocolo de actuación foral para la protección de la infancia y la adolescencia en el ámbito del ocio y del tiempo libre, implementando los medios materiales y personales que dicho protocolo requiera, designando durante la duración de la actividad una figura de delegado o delegada de protección a la infancia y adolescencia a la que las personas menores de edad puedan acudir.

d) Gauzatutako jarduera bakoitzeko, datu hauek bete beharko dira:

d) Por cada actividad realizada habrá que cumplimentar los siguientes datos:

1) Jarduera garatu den tokia. Kanpamentu ibiltariak eginez gero, kanpamentuko tokiei dagokienez, gutxienez bi egonaldi aipatu beharko dira.

1.º El lugar donde se haya realizado la actividad. En el supuesto de que se realicen campamentos volantes, se deberá hacer mención al menos a dos estancias diferentes correspondientes a lugares por donde haya transcurrido dicho campamento.

2) Bizkaian erroldatutako partaideen kopurua, sexuaren eta adinaren arabera, eta partaideko eta eguneko ordaindu den kuota.

2.º Número de personas participantes empadronadas en Bizkaia disgregado por sexo y edad, y cuota abonada por asistente y día.

3) Desgaitasun eta/edo ofizialki aitortutako mendekotasun-maila duten eta Bizkaian erroldatuta dauden haurren edo gazteen kopurua.

3.º Número de niños y niñas o personas jóvenes empadronadas en Bizkaia participantes con discapacidad y/o grado de dependencia reconocido oficialmente.

4) Euskararen, kulturaren eta/edo kirol autoktonoaren erabilera sustatzeko egindako ekimenak.

4.º Iniciativas desarrolladas en el fomento del uso del euskera, de la cultura y/o del deporte autóctono.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: AECX-E0HR-U1GQ-3IQQ
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5) Berdintasuna sustatzeko garatutako ekimenak.

6) Zuzendaritza-kideen, adingabeak babesteko ordezkariaren, begiraleen eta praktikak egin dituztenen izen-abizenak eta NAN zenbakiak.

e) Erakundeak 2026an jasotako diru-sarreren eta dirulaguntzen zenbatekoa, gardentasunaren arloan aplikatu beharreko araudia betez.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek erakunde parte-hartzaileei eta eskabideetan jasotako pertsonei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak 2026an emandako ziurtagiri negatiboak, jardueran parte hartzen zuten profesional eta boluntario guztienak.

e) Arduradunen (zuzendaria eta begiraleak) B2 euskara-maila edo baliokidea egiaztatzen duen titulazioa egiaztatua, diruz lagundu daitekeen jarduera euskaraz egiten bada.

